

Fakturazio Elektronikoaren Araudia

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua) 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera obren ziurtagiriak edo kontratuaren burutzapen osoa edo partziala egiaztatzen duten agiriak ematen direnetik hasitako hogeita hamar eguneko epearen barruan eskainitako zerbitzuaren prezioa ordaintzea beharrezkoa dela xedatzen du.

2013ko abenduaren 27an faktura elektronikoa sustatzeko eta Sektore Publikoan fakturen kontabilitate erregistroa sortzeko legea onetsi zen Kongresuan.

Lege berriarekin, 2015eko urtarrilaren 15etik aurrera faktura elektronikoa beharrezkoa izango da 5.000 eurotik gorakoak diren faktura guztien kasuan.

Ekainaren 24ko HAP/1074/2014 Aginduaren arabera, Autonomia Erkidegoetan eta Tokiko Erakundeetan faktura elektronikoak jasotzeko puntu orokor bat eduki behar da.

182/2014 Foru Dekretuaren bidez, Faktura Elektronikoen Bizkaiko Foru Aldundiaren Sarrera-Puntu Orokorra sortu da eta faktura horiek izapidetu eta kontabilitatean erregistratzeko prozedura araupetu da.

Halaber, Ogasun Eta Finantza Saileko diputatuaren 143/2015 Foru Aginduaren bitartez, Faktura Elektronikoen Sarrera-Puntu Orokorrak izan behar dituen baldintza teknikoak eta funtzionalak araupetu dira.

Faktura elektronikoaren gaineko xedapenak BOEn

Faktura elektronikoak

- Faktura elektronikoa bultzatu eta Sektore Publikoan fakturen kontabilitate erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legea.

[PDF \(BOE-A-2013-13722 - 18 orr. - 288 KB\)](#)

Faktura elektronikoak

- Ekainaren 24ko HAP/1074/2014 Agindua, Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorak bete beharreko baldintza tekniko eta funtzionalak arautzen dituen.

[PDF \(BOE-A-2014-6662 - 8 orr. - 226 KB\)](#)

Faktura elektronikoak

- Herri Administrazioen Estatu Idazkaritzaren eta Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren 2014ko urriaren 10eko ebazpena, faktura elektronikoen sarrera puntu orokorraren baldintza tekniko normalizatuak ezartzen dituen.

[PDF \(BOE-A-2014-10660 - 5 orr. - 176 KB\)](#)

Faktura elektronikoak - BFA

- 182/2014 Foru Dekretuaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Faktura Elektronikoen Sargune Nagusia sortu da eta faktura horien tramitaziorako eta kontabilitate-erregistrorako prozedura arautu da.

[PuntoGeneralEntrada.pdf](#)

- Era berean, Ogasun eta Finantza diputatuaren 143/2015 Foru Aginduaren bitartez, Faktura Elektronikoen Sargune Nagusiak bete beharreko baldintza tekniko eta funtzionalak arautu dira.

[OF143-2015.pdf](#)

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 104/2016 Foru Dekretua, ekainaren 7koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 23ko 182/2014 Foru Dekretua aldatzen da. Azken dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru aldundiko **faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra** sortzen da eta faktura horiek izapidetu eta kontabilitatean erregistratzeko prozedura arautzen da.

[SarreraPuntuOrokorra Decreto104-2016.pdf](#)